

ZARAUTZ / Literatura solasaldiak berriro martxan dira Sanz Enean

Literatura solasaldiak berriro martxan dira, ondorengo izenburu eta solasaldiekin. Lehena, Julen Gabiriaren 'Connemara gure bihotzean' bihar, bertan, arratsaldeko 18:30-20:00 bitartean Sanz Eneako liburutegian. Ondorengo, Uxue Apaolazaren 'Umeek gezurra esaten dutenetik' azaroaren 24ean, asteazkena, arratsaldeko 18:30-20:00 etara Abenduan Aitziber Etxeberriaren 'Tango urdina'. Solasaldien dinamizatzailea Ane Mayo izango da.

"Gogoia eta gustukoa baduzu irakurri. Nahi izanez gero, jarritako egunetan, liburutegira etorri irakurritakoari buruz min-tzatzer. Taldeak irekiak dira", diote Sanz Eneatik.

Liburuak lortzeko, liburutegiko pertsonalarekin harremanetan jarri eta Euskadiko Irakurketa Sarean eskuragarri badago eskaera bideratuko zaizu. Informazio gisa dossierrak ere eskuragarri jartzen dituzte. Bertan, idazleari buruzko datu biografikoak, liburuari buruzko kritikaren bat, agian elkarrizketaren bat...

Dossier hauek, prest daudenean, eskuragarri izango dira, www.zarautz.org edota liburutegian bertan.